## OLABERRIKO UDALA

*Iragarkia*

Construcciones Trati, S.L. enpresak, «Olaberriko Ihurre Auzoan nekazaritzako makinentzako biltegia» deituriko proiektuaren exekuziorako gordailatutako Bi mila laurehun eta hogeita hamahiru euro eta hirurogeita hemezortzi zentimoko (2.433,78 €) fidantzaren itzulera eskatu du.

Espedientea publikora ateratzen dugu hamabost egunez, Idazkaritzan egongo delarik norbaitek eskubideren bat baduela uste izango balu, udal erregistroan erreklamazioa aurkeztu ahal izan dezan.

Olaberria, 2008ko otsailaren 5a.—Txomin Mendoza Perez, Alkatea.

(150) (1430)

## AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

*Anuncio*

Se ha solicitado la devolución de aval de dos mil cuatrocientos treinta y tres euros y setenta y ocho céntimos de euro (2.433,78 €) depositado por Construcciones Trati, S.L. para la ejecución del proyecto denominado «Almacén para maquinaria en el Barrio de Ihurre (Olaberria)».

El expediente queda expuesto al público en Secretaría durante el plazo de 15 días hábiles, para que puedan presentar reclamaciones en el registro del Ayuntamiento aquellos que creyeren tener algún derecho exigible.

Olaberria, a 5 de febrero de 2008.—El Alcalde, Txomin Mendoza Perez.

(150) (1430)

## OÑATIKO UDALA

*Iragarkia*

2007ko urriaren 27ko Udal Plenoaren erabakiz «Oñatiko udalerrian zirkulazioko arau-hausteen araudia» hasiera bateko izaeraz onartzea erabaki zen. Aipaturiko erabakiak jendeagirian egon den 30 eguneko epean alegazio bat jaso da; argitaratu zen 2007ko azaroaren 5eko dataz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udal Iragarki Taulan.

Arantza Agirre Vicente andreak egindako alegazioan eskatu du Ordenantzaren zenbait artikulu indarrean dagoen legediari egokitzea.

Aurreko ikusirik, 2008ko urtarrilaren 31ko Udal Plenoak ahobatez ondorengo erabakiak hartu ditu:

*Lehena:* Arantza Agirre Vicente andreak egindako alegazioa onartu eta indarrean dagoen legediari ondorengo artikuluen edukia egokitzea: 1, 28, 30, 40 eta 63.

*Bigarrena:* Aipaturiko Araudia behin betiko izaeraz onartzea, era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN zuzendutako testu osoa argitara ematea erabaki delarik.

### OÑATIKO UDALERRIAN ZIRKULAZIOKO ARAU-HAUSTEAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

### I KAPITULUA

### OROKORRAK

*1 artikulua.*

Udal Ordenantza honen bidez, Oñatiko udalerrian egiten diren zirkulazioko arau-hausteak arautuko dira. Hala ere, ordenantzan esaten dena jarraian datozen dekretu nahiz legeetan esaten denarekin bat ez datorrenean, azken horiek ezarritakoa beteko da. Hauek dira dekretu eta lege horiek: 1934ko irailaren 25eko Dekretua, Zirkulazioko Kodea onartzen duena; 18/1989 Legea, uztailaren 25ekoa, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko oinarriena; 339/1990 Errege Legegintza Dekretua, martxoaren 2koa, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duena (abenduaren 19ko 19/2001 Legearen aldaketa kontuan

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Anuncio*

Por acuerdo Plenario de fecha 25 de octubre de 2007, se aprobó con cáracter inicial la «Ordenanza reguladora de las infracciones en materia de trafico en el municipio de Oñati». El citado acuerdo fue expuesto por término de 30 días en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 5 de noviembre de 2007 y Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, durante el citado período se ha recibido una alegación.

Alegación formulada por D.ª Arantza Agirre Vicente en la cual solicita la adecuación a la normativa vigente de diversos articulos de Ordenanza Municipal.

Visto lo anterior el Pleno Municipal reunido en sesión de fecha 31 de enero de 2008, adoptó por unanimidad los siguientes acuerdos:

*Primero:* Estimar la alegación formulada por D.ª Arantza Agirre Vicente y adecuar a la normativa vigente la redacción de los siguientes articulos: 1, 28, 30, 40 y 63.

*Segundo:* Aprobar con cáracter definitivo la citada Ordenanza, publicación su texto íntegro y corregido en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

### ORDENANZA REGULADORA DE LAS INFRACCIONES EN MATERIA DE TRAFICO EN EL MUNICIPIO DE OÑATI

### CAPITULO I

### GENERALIDADES

*Artículo 1.*

La presente Ordenanza Municipal regulará las infracciones que en materia de tráfico se cometan en el término municipal de Oñati, sin perjuicio de lo establecido en el Decreto 25 de setiembre de 1934, por el que se aprueba el Código de Circulación, en la Ley 18/1989 de 25 de julio de Bases sobre Tráfico y Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial (modificado Ley 19/2001 de 19 de diciembre), en el Real Decreto 1428/2003 de 21 de noviembre (modificado RD 965/2006 de 1 de setiembre), por el que se aprueba el Reglamento General de

hartuz); 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21eko, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua aplikatu eta garatzeko Zirkulazioko Araudi Orokorra onartzen zuena (irailaren 1eko 965/2006 Erret Dekretuaren aldaketa kontuan hartuz) eta bat datozen gainerako xedapen aplikagarriak.

## II KAPITULUA

## APARKATZEA

*2 artikulua.*

Ordenantza honen ondorioetarako, aparkatutzat jotzen da geldirik dagoen ibilgailu oro, geldialdi motzetan eta nahitaezko geldialdietan salbu.

Geldialdi motzetan, bi minutu baino gutxiagoz edukitzen da ibilgailua geldirik, bidaiariak igo nahiz jaisteko, edo zamalanak egiteko.

Nahitaezko geldialdietan, ibilgailua ezinbestean egoten da geldirik, larrialdiren batengatik, zirkulazioko premiengatik edo araudiko aginduren bat betetzeko.

*3 artikulua.*

Geldialdi motzak egitea debekaturik dagoen lekuetan aparkatzea arau-hauste arina da.

*4 artikulua.*

Eremu hauetan, debekaturik dago ibilgailuak aparkatzea:

a) Baimendutako ordutegietan, zamalanetarako erreserbaturiko eremuetan.

b) «Minusbaliatuen erabilerarako soilik» adierazten duten seinaleak dituzten eremuetan.

c) Espaloien, pasealekuen eta oinezkoentzako gainerako eremuen gainean.

d) Behar bezala adierazitako ibien aurrean.

e) Bigarren ilaran.

f) Z/B seinaleak dituzten eremuetan (Zaborra/Basura).

g) Behar bezala adierazita eta mugatuta dauden garraio publikoko geltokietan.

h) Larrialdi- nahiz segurtasun-zerbitzuetarako eta zerbitzu ofizialetarako berariaz erreserbatutako eremuetan.

Kapitulu honetan azaldutako atalekin lotutako arau-hausteak arinak dira.

*5 artikulua.*

Arau-hauste larria da ibilgailuak udalerriko edozein kaletako zirkulazioa oztopatuz aparkatzea.

*6 artikulua.*

Arau-hauste arina da ezarritako mugaren bat haustea, denbora-tarteko mugarekin arauturiko eremuetan aparkatzean, edo dagokion ordenantzaren bidez arautuko eremu urdinean aparkatzean.

*7 artikulua.*

Ibilgailuak ahalik eta azalera gutxien okupatuz edo horretarako mugatutako eremuetan aparkatu behar dira. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arina da.

Circulación para la aplicación y desarrollo del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, y en las demás disposiciones concordantes aplicables.

## CAPITULO II

## ESTACIONAMIENTO

*Artículo 2.*

A efectos de la presente Ordenanza se considera estacionamiento toda inmovilización de vehículo que no se considere parada o detención.

Se considerará como parada la inmovilización de un vehículo durante un periodo de tiempo inferior a dos minutos para tomar o dejar pasajeros o cargar y descargar cosas.

Se considerará detención la inmovilización de un vehículo por emergencia, por necesidades de la circulación o para cumplir algún precepto reglamentario.

*Artículo 3.*

El estacionamiento en lugar de parada prohibida se considerará como infracción leve.

*Artículo 4.*

Queda prohibido el estacionamiento de vehículos:

a) En zonas reservadas para carga y descarga dentro del horario autorizado.

b) En zonas señalizadas para uso exclusivo de minusválidos.

c) Sobre aceras, paseos y demas zonas destinadas al paso de peatones.

d) Delante de los vados señalizados correctamente.

e) En doble fila.

f) En las zonas señalizadas Z/B (zaborra/basura).

g) En las paradas de transporte público debidamente señalizadas y delimitadas.

h) En los espacios expresamente reservados a servicios de urgencia, seguridad y oficiales.

Las infracciones relativas a los apartados reseñados en este capítulo tendrán la consideración de leves.

*Artículo 5.*

El estacionamiento de vehículos que obstruyeren la circulación en cualquier calle de la villa se considerará infracción grave.

*Artículo 6.*

El estacionamiento en zona regulada con limitación de tiempo o zona azul regulada mediante la correspondiente Ordenanza incumpliendo alguna de las limitaciones impuestas se considerará infracción leve.

*Artículo 7.*

El estacionamiento de vehículos debe realizarse siempre ocupando el menor espacio posible o en zonas delimitadas para ello. El incumplimiento de este artículo se considerará infracción leve.

*8 artikulua.*

Bide-marrekin edo seinale bertikalekin behar bezala adierazita dauden debekatutako eremuetan aparkatzea arau-hauste arina da.

*9 artikulua.*

Galtzadan edo galtzadaren zati bat okupatuz ibilgailuak aparkatzea arau-hauste arina da.

Ordenantza honen ondorioetarako, ibilgailuek zirkulatzeko erabiltzen duten errepideko zatia da galtzada. Errei bakoitzeko automobil ilara bat igarotzeko besteko zabalera izan behar du galtzadak. Automobilen definizioaren barruan, kamioi deritzenak ere sartzen dira.

*10 artikulua.*

Debekatuta dago 30 egun naturalez ibilgailua leku berean aparkaturik edukitzea. Debeku hau ez betetzea arau-hauste arina da.

*11 artikulua.*

Berariaz baimendutako eremuetan izan ezik, edo ordutegi barruan zamalanak egiteko izan ezik, debekaturik dago ibilgailu hauek udalerriko kaleetan aparkatzea: 3. kategoriako ibilgailuak, nekazaritzako ibilgailuak, lan publikoetako ibilgailuak, karabanak eta atoi-erdiak. Debeku hau ez betetzea arau-hauste arina da.

*12 artikulua.*

Zamalanen ordutegia 08:00 eta 12:00 bitartekoa da lanegun eta larunbatetan. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arina da.

Zamalanak, oro har, horretarako egokitutako eremuetan egingo dira. Dena den, baimendurik egongo da horretarako erreserbaturiko eremuetatik kanpo zamalanak egitea, zamalanetarako eremurik ez dagoenean, edo biltegiratze-eremurainoko distantziak lana nekagarri eta arriskutsu egiten duenean.

Hauek ez dira zamalantzat hartuko: Etxerik etxeko zaborbilketako lanak; paper-, beira- eta plastiko-edukiontzien bilketa-lanak; larunbat goizetako udal-merkatuko zamalanak; eta larunbat goizetako asteko merkatuko zamalanak.

*13 artikulua.*

Arau-hauste larria da jendea bizi den eraikinetako oinezkoen sartu-irtenak eragotziz ibilgailuak aparkatzea.

*14 artikulua.*

Beste ibilgailuei baimendutako bira egitea eragotziz aparkatzea arau-hauste larria da, bai eta beste ibilgailuei biratzeko maniobrak egitera behartuz aparkatzea ere.

*15 artikulua.*

Aparkatzeko azalerarik ez duten bide publikoetan, motorrak espaloi eta pasealekuetan aparkatu ahalko dira; betiere, oinezkoen eremua 3 m baino zabalgoa bada, eta motorra espaloiarekiko paraleloan eta ertzetik 50 cm ingurura aparkatzen bada.

## III KAPITULUA

## ZIRKULAZIOA

*16 artikulua.*

Automobilez edo motorrez eremu hauetan ibiltzea arau-hauste larria da: Pasealeku, irlatxo, espaloi, zonalde berde eta oinezkoen eremuetan.

*Artículo 8.*

El estacionamiento en lugar prohibido debidamente señalizado mediante marcas viales o señalización vertical se considerará infracción leve.

*Artículo 9.*

El estacionamiento de vehículos en la calzada u ocupando parte de ella se considerará infracción leve.

A los efectos de esta Ordenanza se entenderá como calzada la parte de la carretera dedicada a la circulación de vehículos, debiendo tener la anchura suficiente por carril para permitir la circulación de una fila de automóviles, dentro de cuya definición entrarían los conocidos como camiones.

*Artículo 10.*

Se prohíbe el estacionamiento continuado de 30 días naturales consecutivos en el mismo lugar. El incumplimiento de esta prohibición se considerará infracción leve.

*Artículo 11.*

Queda prohibido el estacionamiento de vehículos de 3.ª categoría, vehículos especiales, agrícolas o de obras públicas, caravanas y semi-remolques en todas las calles de la Villa, excepto en las zonas autorizadas para ello o para efectuar tareas de carga y descarga dentro del horario autorizado. El incumplimiento de esta prohibición se considerará infracción leve.

*Artículo 12.*

El horario de carga y descarga será de 08:00 a 12:00 horas por las mañanas en días laborables y de 08:00 a 12:00 los sábados. El incumplimiento del mismo se considerará infracción leve.

Las labores de carga y descarga se realizarán por norma general en los espacios habilitados al efecto. Solamente se permitirá la carga y descarga fuera de las zonas reservadas cuando no existieran éstas o su distancia al lugar del almacenaje se hiciese penoso o peligroso.

No se entenderán incluidos en este artículo las labores de recogida de basura domiciliaria, las labores del servicio de recogida de contenedores de papel, vidrio y plástico, las labores de descarga en el mercado municipal los sábados por la mañana y las labores de descarga del mercadillo semanal los sábados por la mañana.

*Artículo 13.*

El estacionamiento de vehículos cerrando el acceso peatonal a inmuebles habitados se considerará infracción grave.

*Artículo 14.*

Estacionar en lugar donde se impida el giro autorizado o se obligue a realizar maniobra para realizarlo se considerará infracción grave.

*Artículo 15.*

En las vías públicas en que no existan espacios destinados a tal fin, las motocicletas podrán estacionar en aceras y paseos peatonales de más de 3 metros de ancho, paralelamente a la acera y a una distancia de 50 centímetros del bordillo.

## CAPITULO III

## CIRCULACIÓN

*Artículo 16.*

La circulación de vehículos automóviles y motocicletas por paseos, isletas, aceras, escaleras, zonas verdes o áreas peatonales se considerará infracción grave.

Eremu horietan bizikletaz zirkulatzea arau-hauste arina da.

*17 artikulua.*

Arau-hauste larria da gidariek ez betetzea seinaleek edo autoritateko agenteek esandakoa.

*18 artikulua.*

Gidariek semaforoen seinaleak ez betetzea arau-hauste larria da.

*19 artikulua.*

Oinezkoak bidea gurutzatzen hasi ondoren, ibilgailu batek oinezkoen pasagunea hartzea arau-hauste larria da.

*20 artikulua.*

Ibilgailu batekin noranzko debekatuan zirkulatzea arau-hauste oso larria da.

*21 artikulua.*

Ibilgailu batek debekatutako bira bat egitea arau-hauste larria da.

*22 artikulua.*

Pasatzen uzteko seinale bat ez betetzea arau-hauste larria da.

*23 artikulua.*

Ibilgailu batek lehentasuna duen beste bati pasatzen ez uztea arau-hauste larria da.

*24 artikulua.*

STOP seinale bat ez betetzea arau-hauste larria da.

*25 artikulua.*

Baimendutako abiadura baino azkarrago zirkulatzea arau-hauste larria da eta zigorra jasoko du hori egiten duen ibilgailuaren gidariak. Isuna kalkulatzeko, mota honetako arau-hausteentzat erabakitako kopurua biderkatu egingo da, abiadura-mugaren gainetik egindako 10 km/h bakoitzeko.

Baimendutako abiadura baino %50 azkarrago zirkulatzea eta, aldi berean, baimendutako abiadura baino 30 km/h azkarrago gidatzea, arau-hauste oso larria da.

*26 artikulua.*

Debekaturiko aurreratzeak egitea arau-hauste larria da. Aurreratzean harrapatze-arriskua edo talka-arriskua egonez gero, arau-hauste oso larria da.

*27 artikulua.*

Ibilgailuentzat zirkulazio debekatua dela dioten seinaleekin adierazitako eremuetan zirkulatzea arau-hauste larria da.

*28 artikulua.*

Autoritateko Agenteek irizten badiote gidari batek ibilgailuarekin ausarkeriaz edo zabarkeriaz zirkulatu duela, gidariak egindako arau-hauste oso larria izango da hori. Ibilgailua ausarkeriaz gidatzea, hau da, bidearen gainontzeko erabiltzaileentzako benetako arriskua eta nabarmena sortzeak arau-hauste larria izango du.

Las mismas actuaciones referidas a bicicletas se considerarán infracciones leves.

*Artículo 17.*

La desobediencia de los conductores a las señales o indicaciones de los Agentes de la Autoridad se considerará infracción grave.

*Artículo 18.*

La desobediencia de los conductores a las señales de regulación semafórica se considerará infracción grave.

*Artículo 19.*

La invasión por parte de un vehículo de un paso de peatones, cuando éstos hubieren iniciado el cruce, se considerará falta grave.

*Artículo 20.*

La circulación de un vehículo por dirección prohibida se considerará infracción muy grave.

*Artículo 21.*

La realización de un giro prohibido por un vehículo se considerará infracción grave.

*Artículo 22.*

La desobediencia de una señal de ceda el paso se considerará infracción grave.

*Artículo 23.*

La no cesión de paso de un vehículo a otro con preferencia se considerará infracción grave.

*Artículo 24.*

La desobediencia a la señal de STOP se considerará infracción grave.

*Artículo 25.*

La circulación de vehículos a velocidad superior a la autorizada se considerará infracción grave y se sancionará a razón de la cantidad estipulada para estas infracciones por cada 10 km/h que sobrepasen dicha limitación.

La circulación de vehículos al 50% más de la velocidad autorizada y a su vez, a una velocidad que supere en 30 kilómetros por hora a la autorizada, se considerará una infracción muy grave.

*Artículo 26.*

La realización por parte de vehículos de adelantamientos prohibidos se considerará infracción grave. Si concurriere peligro de atropello o colisión se considerará infracción muy grave.

*Artículo 27.*

La circulación de vehículos por zonas señalizadas como de circulación prohibida para vehículos, se considerará infracción grave.

*Artículo 28.*

La conducción de vehículos de manera temeraria considerada así por los Agentes de la Autoridad se considerará infracción muy grave. La conducción de vehículos de manera negligente, esto es, la que crea un riesgo cierto y relevante para otros usuarios de la via, se considerará infracción grave.

*29 artikulua.*

Tamaina bereziko hirugarren kategoriako ibilgailuek udalerriko kaleetatik zirkulatu behar duten aldi guztietan, behar besteko aurrerapenaz ohartarazi behar zaio Udaltzaingoari, eta gidariak itxaron egin beharko du, egin beharreko ibilbidean udaltzainek laguntzeko. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arina da.

*30 artikulua.*

Ziklo-motorren gidariek, bai eta motorren gidariek nahiz gidari-lagunek ere, kaskoa behar bezala jarrita eraman behar dute. Arau-haustearen erantzunkizuna gidarianena izango da. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larria da.

*31 artikulua.*

Horretarako bereziki baimendutako gune, oinezkoen bide edota hauen zatiak izan ezik patinak, monopatinak edo antzekoak ezingo dira errepidetik ibili.

Pertsonen ibilera normalean espaloi edota oinezkoen guneetatik bakarrik ibili ahal izango dira eta inoiz ez da onartuko beste ibilgailu bati lotuta ibiltzea.

Artikulu honetan ezarritakoa ez betetzeak arau-hauste arin izaera izango du.

*32 artikulua.*

12 urtera arteko umeek espaloitik, nasatik eta pasealekuetatik zirkulatzeko aukera izango dute, oinezkoen abiaduran ibiliz gero eta honako garraiobide hauek erabiliz gero: Patinak, monopatinak, patineteak, bizikletak, trizikloak eta antzekoak.

*33 artikulua.*

Honako hauek arau-hauste oso larriak dira: Edari alkoholdunen edo substantzia haluzinogenoen eraginpean gidatzea; botatako airean, araudian une eta egoera bakoitzerako ezarritakoa baino alkohol-tasa handiagoarekin gidatzea; eta horretarako onartutako frogak egiteari uko egitea.

## IV KAPITULUA

## OINEZKOAK

*34 artikulua.*

Oinezkoek ez dute zirkulazioa oztopatzen duen talderik osatuko. Artikulu honetan xedatutakoa ez betetzea arau-hauste arina da.

*35 artikulua.*

Oinezkoek ez dute lasterketa edo jokorik egingo, horiek gainerako oinezkoei traba egiten dietenean. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arina da.

*36 artikulua.*

Fardelak, saskiak edo beste edozein objektu daramaten pertsonak espaloitik hurbilen dagoen zatitik joango dira, eta arretaz ibiliko dira gainerako oinezkoei lesio, kolpe eta eragozpenik ez sortzeko. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arina da.

*37 artikulua.*

Galtzada gurutzatu behar dutenek horretarako seinaleztatutako oinezkoen bidetik egingo dute, semaforoen seinaleak, edo, hala dagokionean, agenteen seinaleak betez. Seinaleztatutako pasabiderik ez badago, ibilbide motzenetik gurutzatuko dute, eta ahalik eta denbora gutxien egongo dira galtzadan. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arina da.

*Artículo 29.*

Siempre que un vehículo de tercera categoría y de dimensiones especiales haya de circular por las calles del municipio deberá avisar con la debida antelación a la Policía Municipal y esperar para que ésta le acompañe en su recorrido. El no cumplimiento de este artículo se considerará infracción leve.

*Artículo 30.*

Los conductores de ciclomotores, así como los de motocicletas y acompañante, deberán llevar colocado debidamente el correspondiente casco protector. La responsabilidad por la infracción recaerá en el conductor. El incumplimiento de este artículo se considerará infracción grave.

*Artículo 31.*

Los patines, monopatines o aparatos similares no podrán circular por la calzada, salvo que se trate de zonas, vias peatonales o parte de las mismas que les estén específicamente destinadas.

Solamente podrán circular a paso de persona por aceras o zonas peatonales sin que en ningún caso se permita que sean arrastrados por otros vehículos.

El incumplimiento de lo establecido en este artículo se considerará infracción leve.

*Artículo 32.*

Los patines, monopatines, bicicletas o triciclos de niño y similares, ocupados por menores de hasta 12 años, podrán circular por las aceras, andenes y paseos, adecuando su velocidad a la normal de un peaton.

*Artículo 33.*

Conducir bajo los efectos de bebidas alcohólicas o sustancias alucinógenas, conducir con tasa de alcohol expirado en aire superior a la que en cada momento y circunstancias se estipule reglamentariamente o negarse a realizar las pruebas reglamentariamente aprobadas a tal fin, se considerará infracción muy grave.

## CAPITULO IV

## PEATONES

*Artículo 34.*

Los peatones deberán abstenerse de formar grupos que obstruyan la circulación. El incumplimiento de lo dispuesto en este artículo se considerará infracción leve.

*Artículo 35.*

Los peatones deberán abstenerse de celebrar carreras o juegos que puedan molestar a los demás viandantes. El incumplimiento de este artículo se considerará infracción leve.

*Artículo 36.*

Las personas que transporten bultos, cestos u otros objetos cualesquiera, irán por la parte más próxima a la acera y adoptarán todas las precauciones necesarias para evitar lesiones, golpes o molestias a los demás viandantes. El incumplimiento de este artículo se considerará infracción leve.

*Artículo 37.*

Los peatones que deban cruzar la calzada lo harán por los pasos de peatones señalizados al efecto, respetando las señales semafóricas o las dadas por el Agente en su caso. En ausencia de pasos señalizados lo harán por el trayecto más corto y permaneciendo en la calzada el menor tiempo posible. El incumplimiento de este artículo se considerará infracción leve.

## V KAPITULUA

## TEKNIKA ADMINISTRATIBOAK ETA INGURUMENA

*38 artikulua.*

Argi egokirik gabe zirkulatzea arau-hauste larria da.

*39 artikulua.*

Gidabaimenik, nahitaezko asegururik edo zirkulazioko baimenik gabe zirkulatzearen salaketa bertan behera utziko da hurrengo 24 orduetan gidariak agiri horiek dituela frogatzen badu.

*40 artikulua.*

Baimendutakoa baino bidaiari gehiagorekin zirkulatzea arau-hauste arina da.

Gidaria kontuan hartu gabe baimendutako plaza kopurua %50ean gaindituz pertsonen garraioa egitea arau-hauste oso larritzat joko da.

*41 artikulua.*

Hots-seinaleak modu desegokian erabiltzea arau-hauste larria da.

*42 artikulua.*

Neurriz gaineko kea edo zarata sortzea arau-hauste larria da.

*43 artikulua.*

Motorrek eta ziklo-motorrek ezingo dute, azelerazioan neurtuta, 76 dezibel baino gehiagoko zarata kanporantz atera, ibilgailuaren hurbileneko azaleratik 7,5 metrora.

Neurri hori gaindituz gero, ibilgailua geldiaraziko da.

*44 artikulua.*

Debekaturik dago motor-ibilgailuak bide publikoetan garbitzea, koipeztatzea edo konpontzea. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arina da.

*45 artikulua.*

Galtzadaren edo espaloiaren gainean fardelak eta merkantziak uztea, edo horiek galtzada nahiz espaloian arrastaka eramatea arau-hauste arina da.

*46 artikulua.*

Zirkulazio-seinaleak hondatzea arau-hauste larria da. Zigorraz gain, eragindako kalteak ordaindu beharko dira.

*47 artikulua.*

Debekaturik dago olanak, horma-irudiak, iragarkiak eta, oro har, instalazioak jartzea, horiek semaforoak eta seinaleak ikustea mugatu edo eragozten badute, edo gidariak itsutzen badituzte. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larria da.

## VI KAPITULUA

## PROZEDURAKO BESTE ARAU BATZUK

*48 artikulua.*

Autoritateko Agenteei men ez egitea edo begirunea galtzea arau-hauste larria da, eta men ez egiten jarraituz gero, arau-hauste oso larria izango da.

## CAPITULO V

## TÉCNICAS ADMINISTRATIVAS Y MEDIO AMBIENTE

*Artículo 38.*

La circulación sin alumbrado debido se considerará infracción grave.

*Artículo 39.*

La denuncia por circulación careciendo de permiso de conducción, seguro obligatorio o permiso de circulación unicamente quedará anulada sí el conductor acredita en las 24 horas siguientes la posesión de estos documentos.

*Artículo 40.*

La circulación con exceso de pasajeros sobre lo autorizado se considerará infracción leve.

Realizar transporte de personas aumentando en un 50% el número de plazas autorizadas, excluido el conductor se considerará infracción muy grave.

*Artículo 41.*

El uso indebido de señales acústicas se considerará infracción grave.

*Artículo 42.*

La emisión de humos o ruidos excesivos se considerará infracción grave.

*Artículo 43.*

Las motocicletas y ciclomotores no podrán producir un ruido hacia el exterior medido en aceleración superior a 76 db. medido en aceleración a 7,5 metros desde la superficie más próxima del vehículo.

Sobrepasada esa medida se inmovilizará el vehículo.

*Artículo 44.*

Se prohíbe el lavado, engrase o labores de reparación de vehículos a motor en las vías públicas. La inobservancia de este artículo se considerará infracción leve.

*Artículo 45.*

El depósito de bultos y mercancías sobre la acera o calzada, o su arrastre sobre las mismas se considerará infracción leve.

*Artículo 46.*

Dañar las señales de tráfico se considerará infracción grave. Aparte de la sanción se costeará la reparación de los daños ocasionados.

*Artículo 47.*

Se prohíbe la colocación de toldos, carteles, anuncios e instalaciones en general, que deslumbren, impidan o limiten la normal visibilidad de semáforos y señales. El incumplimiento de este artículo se considerará infracción grave.

## CAPITULO VI

## OTRAS NORMAS DE PROCEDIMIENTO

*Artículo 48.*

El desacato o falta de respeto a los Agentes de la Autoridad se considerará infracción grave, siendo considerada muy grave en caso de persistir en el desacato.

*49 artikulua.*

Zirkulazio Kodean edo Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzkoa Errege Dekretuan jasotako beste arauren bat betetzen ez bada, arau-hauste hori xedapen horietan emandako sailkapenaren arabera zigortuko da, eta ordenantza honetan onartutako kopuruak aplikatuko dira.

*50 artikulua.*

Etxean lehen aldiz jaso eta 30 egun baino lehen isuna ordainduz gero, isunaren zenbatekoa %30 murriztuko da.

*51 artikulua.*

Aparkatutako ibilgailuek ekintza hauetakoren bat eragotziz gero, garabiaren bidez udalaren lokaletara eraman ahalko dira: Udalerriko kaleren batetik ibilgailuak igarotzea, espaloi edo zebra-bideetatik oinezkoak pasatzea, eta behar bezala adierazitako baimendutako ibidun garajeetan ibilgailuak sartu eta irtetea. Eta gauza bera egin ahalko da, ibilgailuek minusbaliatuen eremuak, garraio publikoen geltokiak, zamalanetarako eremuak edo zaborra biltzeko eremuak okupatuz gero.

Bide publikotik kendutako eta udalaren lokaletan utzitako ibilgailuen jabeek, ibilgailua berreskuratu baino lehen, ibilgailua kentzeak eragindako osoko kostua ordaindu beharko dute.

*52 artikulua.*

Bide publikoan oztopoak jartzeko Udalaren baimena beharko da aurrez, oztopo horiek ibilgailuak nahiz oinezkoak normaltasunez bide publikotik ibiltzea zailtzen dutenean. Bestalde, oztopo horiek gauez behar bezala seinaleztatu eta argiztatu beharko dira. Artikulu honetan xedatutakoa ez betetzea arau-hauste larria da.

*53 artikulua.*

Udaltzaingoak, segurtasun-arrazoiak direla-eta, edo zirkulazioaren arintasuna bermatzeko, zirkulazioaren antolamendua aldi baterako aldatu dezake, kasuan kasuko guneetan seinaleak jarriz edo kenduz.

*54 artikulua.*

Udalak, zonalde bakoitzaren beharren arabera, aparkaldi mugatuko guneak ezarri ahalko ditu, eta horiek seinale egokien arabera arautu.

VII KAPITULUA

UTZITAKO IBILGAILUAK

*55 artikulua.*

Kasu hauetan, ibilgailuak utzitzat joko dira:

a) Agintari eskudunak ibilgailua bide publikotik kendu ondoren, bi hile baino gehiago iragatean.

b) Hilabete baino gehiago leku berean aparkaturik egonda, bere kabuz mugitzea ezinezko egiten duten kalteak dituenean; edo matrikula-plakak falta zaizkionean.

*Artículo 49.*

La infracción de cualquier otro precepto contenido en el Código de la Circulación o en el Real Decreto Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial se sancionará de conformidad a la calificación que se le otorgue en dichas disposiciones aplicándose las cantidades aprobadas en la presente Ordenanza.

*Artículo 50.*

El pago de la multa durante el periodo de 30 días a partir de la primera notificación a domicilio dará lugar a una reducción del 30% de su cuantía.

*Artículo 51.*

En los casos en que se impida la circulación de vehículos por una calle del municipio, se impida el paso de peatones por alguna acera o paso marcado con cebrado, se obstruya la entrada o salida de vehículos a garajes con vado autorizado debidamente señalizado, se ocupen reservas para minusválidos, zonas reservadas para parada de transportes públicos, zonas reservadas para carga y descarga o zonas de recogida de basuras, los vehículos que provocan la obstrucción podrán ser retirados mediante grúa a dependencias municipales.

Los propietarios de los vehículos retirados de la vía pública y depositados en dependencias municipales, deberán antes de poder retirarlos abonar la totalidad de los gastos de retirada ocasionados.

*Artículo 52.*

La colocación de obstáculos en la vía pública que dificulten la normal circulación de vehículos o peatones deberá contar con previa autorización municipal y quedar debidamente señalizados e iluminados por la noche. El incumplimiento de lo establecido en este artículo se considerará infracción grave.

*Artículo 53.*

La Policía Municipal, por razones de seguridad o de orden público, o bien para garantizar la fluidez de la circulación, podrá modificar eventualmente la ordenación del tráfico en los puntos necesarios al efecto, colocando o retirando las señales precisas.

*Artículo 54.*

El Ayuntamiento podrá regular por medio de la adecuada señalización zonas de estacionamiento limitado adecuándolas a las necesidades específicas de cada zona.

CAPITULO VII

DE LOS VEHÍCULOS ABANDONADOS

*Artículo 55.*

Se presumirá que un vehículo está abandonado en los siguientes casos:

a) Cuando transcurran más de dos meses desde que el vehículo haya sido depositado tras su retirada de la vía pública por la autoridad competente.

b) Cuando permanezca estacionado por un periodo superior a un mes en el mismo lugar y presente desperfectos que hagan imposible su desplazamiento por sus propios medios o le falten las placas de matriculación.

*56 artikulua.*

Aurreko artikuluko a) atalean azaldutako egoeran, ezarritako bi hileko epea bukatzean, titularrari hamabost eguneko epean ibilgailua biltegitik jasotzeko eskatuko zaio, eta ohartaraziko zaio hori egin ezean, ibilgailu utzitzat hartuko dela, eta hiriko hondakin solidoen tratamendua emango ziola.

Aurreko artikuluko b) atalean azaldutako egoeran, titularrari ibilgailua hamabost eguneko epean bide publikotik kentzeko eskatuko zaio; betiere, ibilgailuak utzia izatearen adierazgarriak izan arren, matrikula-plaka badu edo titularra identifikatzeko ageriko edozein marka edo seinale badu.

Hori egin ezean, ibilgailua biltegira eramango da, eta titularrari jakinarazpena bidaliko zaio, eskatuz 15 eguneko epean ibilgailua biltegitik jasotzeko. Era berean, ohartaraziko zaio hori egin ezean, ibilgailu utzitzat hartuko dela, eta hiri-hondakin solidoen tratamendua emango ziola. b) atalean jasotako gainerako egoeretan, ibilgailua zuzenean tratatuko da hiri-hondakin solidotzat.

*57 artikulua.*

Jakinarazpena Ibilgailuen Erregistroan titular moduan agertzen den pertsonari bidaliko zaio. Dena den, Udalak datuak edukiz gero, eta datu horien arabera, erregistroan agertzen den pertsona eta ibilgailuaren jabea pertsona bera ez direla pentsa badaiteke, jakinarazpena bi pertsona horiei bidaliko zaie.

*58 artikulua.*

Biltegiratutako ibilgailuen titularrak ezezagunak badira, edo non dauden ezagutzen ez bada, eta titularra aurkitzeko gestioak alferrekoak izan badira, goiko artikuluak azaltzen duen jakinarazpena ediktu publikoen bidez egingo da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta titularren kontura, agertuz gero.

*59 artikulua.*

Titularrak berariaz adierazi badu ibilgailua uzteko asmoa, Udalak ibilgailua egokien deritzon moduan erabiliko du.

*60 artikulua.*

Ibilgailua kentzeak eta biltegiratzeak eragindako gastuak titularrak ordaindu beharko ditu.

*61 artikulua.*

Ibilgailu bat utzi izana adierazteak ez du ibilgailua uzteagatik titularrak duen ardura aldatzen, ez eta titulartasun horregatik lehendik jasotako betebeharrak aldatzen ere.

*62 artikulua.*

Ibilgailu bat utzi eta hiri-hondakin solido moduan tratatzen denean, Probintziako Trafiko Buruzagitzari horren berri emango zaio, gertatutakoa ezagutu eta ondorioak aplikatu ditzan.

*63 artikulua.*

Ibilgailuen zirkulazio-zigorrak ezartzeko administrazio-prozesua indarrean dagoen legedian ezarritakoa da.

Honako hauekin loturiko arau-hausteak Gipuzkoako Probintziako Trafiko Buruzagitzan izapidetuko dira; arau-hauste horiek zigortzeko eskumena duen organoa den aldetik: Gidabaimena, ibilgailuen azterketa teknikoa, zirkulazio-baimena eta nahitaezko aseguruaren poliza.

*Artículo 56.*

En el supuesto contemplado en el apartado a) del artículo anterior, una vez finalizado el plazo de dos meses fijado en el mismo, se requerirá al titular para que en el plazo de quince días retire el vehículo del depósito con la advertencia de que en caso contrario se considerará abandonado y se procederá a su tratamiento como residuo sólido urbano.

En el supuesto contemplado en el apartado b) del artículo anterior y siempre que el vehículo, aun teniendo signos de abandono, mantenga la placa de matriculación o disponga de cualquier signo o marca visible que permita la identificación de su titular, se le requerirá a éste para que retire el vehículo de la vía pública en el plazo de quince días.

Si no lo hiciera, el vehículo será trasladado al depósito y se le enviará una nueva notificación requiriéndole para que en el plazo de quince días retire el vehículo, advirtiéndole que en caso contrario se considerará abandonado y se procederá a su tratamiento como residuo sólido urbano. En el resto de los casos previstos en el apartado b) se le dará automáticamente tratamiento de residuo sólido urbano.

*Artículo 57.*

Las notificaciones se efectuarán a quien figure como titular en el Registro de Vehículos salvo que el Ayuntamiento disponga de otros datos que puedan hacer suponer que el propietario es diferente del que figura en el Registro. En este último caso, la notificación se efectuará a ambos.

*Artículo 58.*

Cuando los titulares de los vehículos depositados fuesen desconocidos o se encontrasen en ignorado paradero, una vez que resulten infructuosas las gestiones para su localización, la notificación a que se refiere el número anterior se practicará mediante edictos publicados en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa a costa de los titulares, si apareciesen.

*Artículo 59.*

En los supuestos en que los titulares hayan manifestado de forma expresa su voluntad de abandonar los vehículos, el Ayuntamiento dispondrá de ellos como resulte más conveniente.

*Artículo 60.*

Los gastos derivados de la retirada y depósito de los vehículos abandonados serán por cuenta de sus titulares.

*Artículo 61.*

La declaración de un vehículo como abandonado no alterará la responsabilidad de sus titulares por el abandono de los mismos y/o por obligaciones contraídas anteriormente derivadas de dicha titularidad.

*Artículo 62.*

De la consideración de un vehículo como abandonado y su posterior tratamiento como residuo sólido urbano se dará cuenta a la Jefatura Provincial de Tráfico para su conocimiento y efectos oportunos.

*Artículo 63.*

El procedimiento administrativo para la imposición de las correspondientes sanciones en materia de tráfico y circulación de vehículos será el establecido en la legislación vigente.

Las infracciones relativas a permisos y licencias de conducción, inspección técnica de vehículos, permiso de circulación y póliza de seguro obligatorio se tramitarán a la Oficina Territorial de Tráfico de Gipuzkoa por ser el órgano competente para la sanción de dichas infracciones.

*64 artikulua.*

Arau-hauste arinen zigorra 30 € da, larriena 100 €, eta oso larriena 301 €. Arau-hauste oso larriak Probintziako Trafiko Buruzagitzari jakinaraziko zaizkio, hala badagokio, organismo horrek gidabaimena kentzeko. Orobat, puntuak kentzen dituzten arau-hauste guztiak jakinaraziko zaizkio Buruzagitzari, puntuen araberako gidabaimena arautzen duen legearen (2005) 82. artikuluaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunetik sartuko da indarrean Ordenantza hau.

Oñati, 2008ko otsailaren 1a.—Alkatea.

(263) (1379)

*Iragarkia*

Oñatiko Udala, 2008ko urtarrilaren 31an egindako bilkuran Udal Plenoak ondorengo akordioa onartu zuen:

*« Taberna, kafetegi eta antzeko jarduketetan aritzen diren establezimendu publikoen instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza» aldatzea.*

Oñatiko Udal Plenoak gehiengoz « Taberna, kafetegi eta antzeko jarduketetan aritzen diren establezimendu publikoen instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza»-ri aldaketa batzuk ezartzea hasiera bateko izaeraz onartzea erabaki du, beraz, Toki Erregimeneko 49. artikuluaren arabera jendeagirian jartzen da 30 eguneko epeaz iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, interesatuek Udal Bulegoetan azter dezaten dagozkion alegazioak eta iradokizunak ezarriz.

Halaber, 30 eguneko epean inolako jazarpen idatzirik jaso ez balitz akordioa behin betiko izaeraz onartuta geratuko litzatekela adieraztea erabaki du Udal Plenoak.

Oñati, 2008ko otsailaren 1a.—Alkatea.

(308) (1381)

*«Oñatiko udal aparkalekuetan estazionamendu zerbitzua arautzen duen Ordenantza» behin betiko izaeraz onartzea.*

2.007ko irailaren 26ko Udal Plenoaren erabakiz «Oñatiko udal aparkalekuetan estazionamendu zerbitzua arautzen duen Ordenantza « hasiera bateko izaeraz onartzea erabaki zen. Aipaturiko erabakiak jendeagirian egon den 30 eguneko epean ez iradokizun ezta alegaziorik jaso; argitaratu zen 2.007ko urriaren 24ko dataz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udal Iragarki Taulan.

Aurreko ikusirik, 2008ko urtarrilaren 31ko Udal Plenoaren erabakiz behin betiko izaeraz onartzea erabaki da aipaturiko Araudia.

Aipaturiko Udal Araudiaren testu osoa 2007ko urriaren 24ko dataz argitara eman zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (208 zenbakia).

Hau da herritar guztien jakinerako aditzera ematen dena

Oñati, 2008ko otsailaren 1a.—Alkatea.

(264) (1380)

*Artículo 64.*

Las infracciones leves se sancionarán con multa de 30 €, las graves con multa de 100 € y las muy graves con multa de 301 €. Las infracciones muy graves se comunicarán a la Jefatura Provincial de Tráfico para que resuelva, si es procedente, la suspensión del permiso o licencia de conducción. Así mismo se dará cuenta a la Jefatura de todas aquellas infracciones que resten puntos, de conformidad al articulo 82 de la ley, por la que se regula el permiso y la licencia de conducción por puntos del 2005.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor a partir del día siguiente a su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Oñati, a 1 de febrero de 2008.—La Alcaldesa.

(263) (1379)

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Oñati reunido en sesión Plenaria de fecha 31 de enero de 2008, adoptó el siguiente acuerdo:

*Modificar la «Ordenanza Municipal reguladora de la instalación de establecimientos públicos destinados a actividades de bar, cafetería y similares».*

La Corporación en Pleno por mayoría acuerda, aprobar inicialmente la introducción de unas modificaciones a la «Ordenanza Municipal reguladora de la instalación de establecimientos públicos destinados a actividades de bar, cafetería y similares», lo que se hace público a los efectos del artículo 49 de la Ley de Bases de Régimen Local, abriendo un período de exposición pública de 30 días a partir del siguiente a la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, con la finalidad de que los interesados puedan examinarlo en las Dependencias Municipales y, en su caso, puedan presentar las reclamaciones y sugerencias que estimen oportunas.

Asimismo, el Pleno Municipal acuerda que sí en el plazo de 30 días de exposición pública no se presentará alegación alguna, el acuerdo será considerado firme a todos los efectos.

Oñati, a 1 de febrero de 2008.—La Alcaldesa.

(308) (1381)

*Aprobación Definitiva de la « Ordenanza reguladora del servicio de estacionamiento en los aparcamientos municipales de Oñati».*

Por acuerdo Plenario de fecha 26 de setiembre de 2.007, se aprobó con cáracter inicial la «Ordenanza reguladora del servicio de estacionamiento en los aparcamientos municipales de Oñati». El citado acuerdo fue expuesto por término de 30 días en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 24 de octubre de 2.007 y Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, durante el citado período no habido ni sugerencia ni alegación alguna.

Visto lo anterior el Pleno Municipal reunido en sesión de fecha 31 de enero de 2008, adoptó por unanimidad la aprobación de la citada Ordenanza con cáracter definitivo.

El texto íntegro de la mencionada Ordenanza fue publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 24 de octubre de 2007 (n.º 208).

Lo que se hace público para su general conocimiento.

Oñati, a 1 de febrero de 2008.—La Alcaldesa.

(264) (1380)